- ✓ Buenas y malas prácticas en el Sector no lucrativo
- ✓ La relación entre el Tercer Sector y el Sector Publico.

Básicamente las recomendaciones son las siguientes:

- ✓ Fortalecimiento global del sistema público de servicios sociales
- ✓ Desarrollar y fortalecer las funciones de legislación
- ✓ Diseñar e implantar regulaciones legales
- ✓ Desarrollar y perfeccionar la legislación sobre las organizaciones del tercer sector
- ✓ Clarificar las relaciones entre las administraciones públicas y el tercer sector
- ✓ Autoorganización en red del tercer sector
- ✓ Fortalecer las prácticas y metodologías que fomenten y certifiquen la transparencia.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, agradece el trabajo y reconoce el esfuerzo. A

Osoko Bilkurak testua onartzen duen ala epea zabaldu nahi den planteatu du.

continuación plantea si el Pleno aprueba el texto o se prefiere ampliar el plazo.

Harresiak Apurtuz erakundeko Rigoberto Jara jaunak hartu du hitza, eta hirugarren sektoreak duen zereginaz hitz egitearen garrantzia aitortu du, erakundeen autokritikaz bereziki. Bere ustez, baldintzak betetzen ez dituztenak Administrazioaren laguntzen erakunde onuradunen zerrendatik kendu beharko lirateke.

Toma la palabra D. Rigoberto Jara, de Harresiak Apurtuz, que reconoce la importancia de hablar del papel del Tercer Sector, especialmente del elemento de autocrítica de las organizaciones. Cree que las que no cumplan los requisitos deberían eliminarse del listado de entidades beneficiarias de las ayudas de la Administración.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andrearen ustez, gizarte-zerbitzuak aipatu beharko lirateke. Eta bi arrazoi adierazi ditu: alde batetik, langileentzako laguntzak jasotzen dituzten erakundeen zerbitzuei laguntzen diete eta, bestetik, ahalmenik gabe sentitzen dira Administrazioaren aurrean, zerbitzuak BEZarekin fakturatu behar dituztenean. Gizarte-zerbitzuei lotutako erakundetzat hartzen direnak eta araudia betetzen dutenak zerga horrekin fakturatu beharraz salbuestea proposatzen du.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, echa en falta mención a los servicios sociales e indica dos motivos: asisten a servicios de organizaciones que reciben ayudas que sirven para sustentar al personal; y se sienten impotentes ante la Administración cuando deben facturar sus servicios con IVA. Propone que a las que estén reconocidas como organizaciones de servicios sociales y cumplan con la normativa se les exima de facturar con este impuesto.

Kanpoko aholkulari Fernando Fantova jaunak alderdi horiek Batzordean eztabaidatu direla eta dokumentuaren 5. orrialdean jasota daudela erantzun du. Ondoren, irakurri egin ditu.

D. Fernando Fantova, consultor externo, responde que estas cuestiones han sido debatidas en la Comisión, y que estan recogidas en la página 5 del documento. Procede a su lectura.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak testua bere ustez anbiguoa dela adierazi du, eta Fernando Fantova jaunak Batzordearen adostasuna horretaraino iritsi zela erantzun dio.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, valora el texto como ambigüo, a lo que D. Fernando Fantova responde que el consenso de la Comisión llegó hasta ahí.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari nagusi Jose Luis Madrazo Juanes jaunak adierazi duenez, lehen alderdia 5. orrialdean jasota dago.

D. José Luis Madrazo Juanes, Director General de Atención a la Dependencia y la Desprotección de la Diputación Foral de Gipuzkoa, apunta que en la pág. 5 se recoge su primera consideración.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarteratzearen zuzendari Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak gaineratu duenez, 7. orrialdeko 4. puntuan Blanca Estrella Ruiz andreak planteatutako bigarren alderdia aipatzen da. Eta lan ona dela eta mahaian gordeta geratu beharko ez lukeela adierazi du.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, añade que en el punto 4 de la página 7 se hace referencia a la segunda cuestión planteada por Dña. Blanca Estrella Ruiz. Y añade que es un buen trabajo y que no debiera quedarse en el cajón.

Bi horien ustez, testua behar bezain garbi dago, eta zaila da proposamen garantistagorik aurkitzea. Batzordeak ildo horretan bideratutako sistemak egituratzea proposatu du.

Ambos consideran que el texto está lo suficientemente claro, y que es dificil encontrar unas propuestas más garantistas. La Comisión propone que se estructuren sistemas que vayan en esa línea.

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jauna bat dator dokumentuaren garrantziarekin eta, azpimarratu duenez, Batzordeko kide guztientzat den eta etorkizuneko planen, plangintzen eta ikuspegien oinarri bihur daitekeen esparrua da.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, conincide en la importancia del documento y destaca que se trata de un marco compartido por todas las personas miembro de la Comisión y que puede convertirse en la base de planes, planificaciones y enfoques futuros.

Irse Bizkaia erakundeko Juan Luis Fuente jaunak

D. Juan Luis Fuente, Irse Bizkaia, hace hincapié en

adierazi duenez, dokumentuak ez luke argitalpen, nahi soil izan behar; aitzitik, sakondu egin beharko litzateke, jarraitutasuna eman beharko litzaioke. Ildo horretan, puntuz puntu lantzen jarraitzearen, eta garatu beharreko ekintza zehatzak ezartzearen alde dago. Amaitzeko, Batzordea zoriondu du.

que tampoco se quede en una publicación, en un deseo, sino que se debería profundizar, que tuviera una continuidad. En este sentido, se muestra partidario de seguir trabajándolo punto por punto y de establecer unas acciones concretas a desarrollar. Termina su intervención felicitando a la Comisión.

Kanpoko aholkulari Iratxe Mier andreak jakinarazi duenez, dokumentu hori eta 2004an landutako gainerakoak sozializatzeko ekintzak egiten ari dira. Zehazki, Sailaren web-orrian honako testu hauei buruzko kontsulta egin ahal izango da hemendik gutxira:

Dña. Iratxe Mier, asesora externa, informa que se están desarrollando acciones para socializar éste y los demás documentos elaborados durante el 2004. En concreto, en la página web del Departamento se podrán consultar en breve los siguientes textos:

“Argitalpenak” gunean:

- ✓ EAEko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko IV. Txostena.

En el espacio “Publicaciones”

- ✓ IV Informe sobre la situación de los servicios sociales en la CAPV

“Gogoeta-dokumentuak” gune berrian:

- ✓ Kontseiluaren ereduari buruzko gogoeta.
- ✓ Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak gizarte-zerbitzuei buruzko IV. Txostenaren inguruan egindako gomendioak eta ondorioak.
- ✓ EAEko gizarte-zerbitzuen sistema publikoa eta hirugarren sektorea.

En un nuevo espacio “Documentos de reflexión”

- ✓ Reflexión sobre el modelo de Consejo
- ✓ Conclusiones y Recomendaciones del CVBS al IV Informe sobre los ss.ss
- ✓ Sistema Público de Servicios Sociales y Tercer Sector en la CAPV

2004. urteko aktak esekiko direla eta kontseilukideen zerrenda eguneratuko dela gaineratu du.

Añade que también se colgarán las actas del año 2004 y se actualizará el listado de vocales del Consejo.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak Haurtzaroari buruzko Legea landu duten teknikariak zoriondu ditu, eta beste urte batzuetan legegintzaldi berri bat iristean izandako esperientzia txarra aipatu du, lana gelditu egiten baita. Bere ustez, egin beharreko urratsek ildo horretatik jarraituko dutela bermatu behar da, gobernu-aldaketaren ondorioz zerotik hasi gabe.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, felicita a la técnica y al técnico que han trabajado la Ley de Infancia y hace referencia a la mala experiencia de otros años ante una nueva legislatura, que suele paralizar el trabajo. Opina que se debe garantizar que los pasos vayan a seguir esta línea y no que con el cambio de gobierno se empiece a trabajar desde cero.

Gizarte Ongizateko Fernando Consuegra jaunak aipatu duenez, Kontseiluak azken urte honetan hartu duen lan-dinamikaren baldintzak bermatuta daude Kontseiluaren Dekretu berrian.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, comenta que el Consejo ha adquirido en este último año una dinámica de trabajo cuyas condiciones se garantizan en el nuevo decreto del Consejo.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde Angel Elias Ortega jaunak adierazi duenez, funtzioko Eusko Jaurlaritza osatzen denean Sailak azken egunera arte lanean jarraitzeko eginbeharra beteko du, zalantzarik gabe.

D. Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, indica que cuando se configure el Gobierno Vasco en funciones no debe caber la menor duda de que en el Departamento se va a cumplir con la obligación de seguir trabajando hasta el último día.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak bere kezka gero gertatuko denaren ingurukoa dela erantzun dio.

Dña. Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, responde que su preocupación viene luego.

Harresiak Apurtuz erakundeko Rigoberto Jara jaunak adierazi duenez, oso garrantzitsua da akordioak mantentzea eta lanean jarraitzea, orain artekoa alferrikako denbora izan ez dadin.

D. Rigoberto Jara, de Harresiak Apurtuz, señala la importancia de que se mantengan los acuerdos y se siga trabajando para que no sea un tiempo perdido.

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak bat datorrela adierazi du eta, gaineratu duenez, erakunde-esparrua gainditzen duen dokumentu bat adostasunez lortzea oso garrantzitsua da, jarraitu beharreko bidea da. Eta argitalpen txiki bat egin liteke.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, muestra su acuerdo y añade que alcanzar por consenso un documento más allá de lo institucional es muy importante y la senda a continuar. Y que se podría hacer una sencilla publicación.

Harresiak Apurtuz erakundeko Rigoberto Jara jaunak argitalpena nori zuzenduko zaion galdetu du.

D. Rigoberto Jara, de Harresiak Apurtuz, pregunta a quién irá dirigida la publicación.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarteratzearen zuzendari Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak gizarteari, oro har, zuzendu beharko litzaiokeela erantzun dio.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, responde que debiera ir dirigida a la sociedad en general.

Fevas erakundeko Pedro Fernandez Garcia jaunak Batzordearen bi dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz, hitzaurre labur batekin, eta sailburuaren sinadurarekin argitaratzea proposatu du.

D. Pedro Fernández García, de Fevas, propone hacer una publicación con los dos documentos de la Comisión en euskara y castellano con un breve prólogo y la firma del Consejero.

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak aintzat hartu du, eta horrela egingo dela baieztatu du.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, toma nota y confirma que así se hará.

Osasun Saileko Jose Luis Vidal Marcos jaunak dokumentuak 6. orrialdean "ekintza publikoa" aipatzen duenean zer esan nahi duen galdetu du.

D. Jose Luis Vidal Marcos, del Departamento de Sanidad, pregunta a qué se refiere el documento en la página 6 cuando se dice "acción pública".

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarteratzearen zuzendari Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak kontzeptua Herri Administraziotik harantzago dagoela erantzun dio.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, responde que el concepto va más allá de lo que es la Administración Pública.

Kanpoko aholkulari Fernando Fantova jaunak terminoa argia ez bada "sektore publikoaren ekintza" terminoarekin ordezkatzea proposatu du.

D. Fernando Fantova, consultor externo, propone que si el término no es claro podría sustituirse por "acción del sector público".

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarteratzearen zuzendari Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak desadostasuna adierazi du, "ekintza publiko" terminoak Herri Administrazioa, hirugarren sektorea eta bien arteko koordinazioa barne hartzen baititu.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Director de Inserción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, muestra su desacuerdo ya que "acción pública" aglutina a la Administración pública, el tercer sector y la coordinación entre ambos.

Azkenik, eta eztabaida amaitu ondoren, Osoko Bilkurak terminoa bere horretan uztea erabaki du, eta dokumentua onartutzat hartu da.

Finalmente, y tras concluir el debate, el Pleno decide dejar el término como está y se da por aprobado el documento.

Kanpoko aholkulari Fernando Fantova jaunak, amaitzeko, bere eta Iratxe Mier andrearen kanpoko aholkularitza amaitu dela, eta dekretu berriarekin Kontseiluaren dinamizazioa beste formula batekin egituratu beharko dela gogorarazi du. Halaber, bere eta Iratxe Mier andrearen izenean, emandako laguntza eskertu dio Osoko Bilkurari, eta duela urtebete baino gehiago hasitako prozesuarekin pozik dagoela azaldu du.

D. Fernando Fantova, consultor externo, concluye su intervención recordando que el apoyo externo de Iratxe Mier y él mismo finaliza ya, y que con el nuevo decreto se deberá articular la dinamización del Consejo con otra fórmula. Aprovecha, así mismo, para en nombre de la consultora y el suyo propio agradecer al Pleno su colaboración y mostrar su satisfacción con el proceso emprendido ya hace más de un año.

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak, gai-zerrendaren 5. puntuarekin amaitzeko, laguntza eskertu die kanpoko aholkulariei.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, finaliza el punto 5 del orden del día agradeciendo la colaboración del consultor y la consultora externa.

*6. puntua.- Berralojatzeen protokoloari buruzko aurrelaburpena.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak azaldu duenez, berralojatzeen egoera zehatzak aztertu eta esperimentatu dira eta, aurretiazko dokumentuaren formulapean, berralojatzeen protokoloa egiteko gaitu nahi diren edukiak, helburuak eta tresnak barne hartzen dituen azalpen labur bat eman dio Osoko Bilkurari.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitza eta Arkitektura zuzendari Sonia Samaniego Soto andreak lan honen arrazoiak azaldu ditu. Bereziki azpimarratu du banan banako eta zonaren araberako berralojatzeak egiteko beharra, baina ez edozein modutan, protokolopean baizik. Gaineratu duenez, EAEn zonaren araberako berralojatzeak egin behar izan dira, egin behar dira, eta egin behar izango dira. Horregatik, berralojatzeko prozedura estandarizatzeko mandatua eman zaio irabazi asmorik gabeko erakunde den Suspergintza Elkarteari.

Ildo horretan, orain arte erabili den berralojatze-prozesuei buruzko eskuliburuak erakundeen arteko akordioaren beharra erakusten du (Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta Eudelen artean), gaur bertan Erakunde arteko Batzordean ezagutzera eman dena alegia, berralojatzeek gizartean alarma piztu ordez era estandarizatuan egin daitezen eta Berralojatze Zerbitzua koordinatzeko norbait egon dadin.

Horrez gain, oso pozik dago orain arteko emaitzarekin, eta itxaropentsu agertu da erakundeen arteko akordioa iristeko, eta EAEk berralojatze egokiak egiteko protokoloa izateko aukeraren aurrean.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde Angel Elias Ortega jaunak adierazi duenez, gaia elkarrekin aztertzeko aukera izan da Erakunde arteko Batzordean, baina, aldi berean, Eudelen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lan-konpromiso bat behar da, eta horrek prozesurako lagungarria izango den gogoeta juridikoa eta ekonomikoa eskatzen du.

Amaitzeko, berralojatze-prozesuan gabezia bat ikusi dutela adierazi du, ikuspegi soziokomunitarioaren arloan hain zuzen ere. Horrek ez du esan nahi beste gai batzuk agertu ez direnik, lehentasuna etxebizitzaren gaiari eman zaiola baizik.

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak galderak egiteko txanda zabaldu du eta, galderarik izan ez denez gero, Osoko Bilkura gaiaren

*Punto 6.- Avance sobre protocolo de realojos.*

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, explica que se han analizado las situaciones concretas de realojos, y experimentado, y que bajo la fórmula de documento preliminar se hace entrega al Pleno de una breve exposición con los contenidos, objetivos e instrumentos que se pretenden habilitar para protocolizar los realojos.

Dña Sonia Samaniego Soto, Directora de Vivenda y Arquitectura del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, expone los motivos por los cuales se ha emprendido este trabajo. Hace especial hincapié en la necesidad de realizar realojos individuales y zonales no de cualquier manera sino de una forma protocolizada. Continua diciendo que en la CAPV hay, ha habido y habrá necesidad de hacer realojos zonales, motivo por el cual se ha encargado a Suspergintza Elkartea, entidad sin ánimo de lucro, la estandarización del procedimiento de realojo.

En este sentido, hasta la fecha se cuenta con un manual de procesos de realojo que apunta la necesidad de un acuerdo interinstitucional (entre GV, Diputaciones y Eudel), que se ha dado a conocer hoy mismo en la C. Interinstitucional, con el objetivo de que los realojos, más allá de crear alarma social, se hagan de manera estandarizada y cuenten con una figura de coordinación del Servicio de Realojos.

Se muestra muy satisfecha con el resultado hasta la fecha y esperanzada con que el acuerdo insterinstitucional llegue y la CAPV pueda contar con el protocolo para realizar buenos realos.

D. Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, añade que han tenido la oportunidad de compartir el tema en la C. Interinstitucional pero señala que debe haber parejo un compromiso de trabajo entre Eudel y GV, que necesita de una reflexión jurídica y económica que acompañe el proceso.

Concluye haciendo referencia a que han vivenciado una carencia en el proceso de realojos, la perspectiva sociocomunitaria, lo que no quiere decir que hayan estado ausentes otros temas, pero sí que han priorizado el tema de la vivienda sobre los demás asuntos.

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social,

jakinaren gainean geratu da.

*7. puntua.- Hainbat informazio:*

- ✓ *Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko Dekretuaren egoera.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak jakinarazi duenez, Kontseiluari buruzko Dekretua txosten juridikoaren zain dago, eta aldeko txostena izatea espero da, baina ez du uste hauteskundeen aurretik prest egongo denik. Hala ere, Sailak egungo legegintza-eremuan onartzeko borondatea du.

- ✓ *Udalen Gizarte Zerbitzuei buruzko Dekretua.*

Gizarte Ongizateko zuzendari Fernando Consuegra jaunak jakinarazi duenez, Udalen Gizarte Zerbitzuei buruzko Dekretua ikuspuntu teknikotik itxita dago abendutik, baina landu beharreko gai politiko garrantzitsu batzuk geratzen dira oraindik. Dokumentu teknikoak bere bideari jarraituko dio maiatzetik aurrera, eta dekretu bidez egituratu ezin diren hedadura handiagoko legegintza-berrikuntzak dakartza (finantzaketa, baliabideen katalogoa). Berrikuntza horiek, beraz, beste modu batean egituratu behar dira.

- ✓ *Beste batzuk...*

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde Angel Elias Ortega jaunak hartu du hitza, eta “Udal Sarea” izenekoak euskal udalerrien sare gisa duen garrantzia aipatu du. Sareak garapen iraunkorrari lotutako hiru arlo lantzen ditu: ingurumena, ekonomia eta gizartea. Nolanahi ere, gizarte-arloa bultzatzearen garrantzia azpimarratu du, EAEn ingurumenari eman baitzaio garrantzi handiagoa orain arte (Tokiko Agendak 21).

Era berean, herritarren segurtasunak duen garrantzia aipatu du; ongizatearen elementu erabakigarria da, gizarte guztiak kenkatzen dituena, baina poliziaren esku uzteko joera izaten da. Ildo horretan, Sailak herritarren segurtasunaren gizarte-alderdiak azpimarratzeko lan-mahaiak antolatuko ditu, erakunde latinoamerikarren lankidetzarekin.

Jakinarazi duenez, Sailak globalizazioaren kontrako mugimenduaren ordezkari izan da Portoalegreko Munduko Gizarte Foroaren Kontseiluan, urtarrilean. Kontseilu horretan, bertan egindako gogoetak sozializatzeko beharra aipatu zen eta, eskaera hori kontuan hartuta, Saila lanean jarri da maiatzaren amaierarako topaketa bat antolatzeko Euskalduna Jauregian eta, aldi berean, EHUn. Kontseilu honi gai horien guztien berri emango zaio.

abre un turno de preguntas, que al no producirse se da por informado al Pleno sobre el asunto.

*Punto 7.- Informaciones Varias:*

- ✓ *Situación del Decreto del Consejo Vasco de Bienestar Social.*

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, informa que el Decreto del Consejo está a la espera del informe jurídico, que se espera favorable, aunque no confía en que esté para antes de las elecciones. Aunque la voluntad del Departamento es aprobarlo en el ámbito legislativo actual.

- ✓ *Decreto de los Servicios Sociales Municipales.*

D. Fernando Consuegra, Director de Bienestar Social, informa que el Decreto del los Servicios Sociales Municipales está cerrado desde el punto de vista técnico desde diciembre, pero que restan cuestiones de calado político importantes por trabajar. Este documento técnico seguirá su curso a partir de mayo y supone reformas legislativas de mayor alcance que no se pueden articular mediante decreto (financiación, catálogo de recursos), sino que requieren de otra articulación.

- ✓ *Otros ...*

Toma la palabra D. Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, para comentar la importancia de “Udal Sarea” como red de municipios vascos que trabaja las tres áreas del desarrollo sostenible: medio ambiente, economía y sociedad. Destaca, no obstante, la importancia de impulsar el área de sociedad, ya que en la CAPV hasta ahora se ha dado más importancia al medio ambiente (Agendas 21 local).

Añade también, la importancia de la seguridad ciudadana, elemento crucial del bienestar y objeto de preocupación en todas las sociedades, pero que se tiende a delegar en ámbitos policiales. En este sentido, el Departamento va a organizar mesas de trabajo para resaltar los componentes sociales de la seguridad ciudadana, y contarán con la colaboración de organismos latinoamericanos.

Informa de que el Departamento ha representado al Movimiento Alterglobalización en el Consejo del Foro Social Mundial de Portoalegre, en enero. En dicho Consejo se ha apuntado la necesidad de socializar las reflexiones allí extraídas y, atendiendo a esta petición, el Departamento está trabajando para a finales de mayo poder organizar un encuentro en el Palacio

Euskalduna y simultáneamente en la UPV. De todos estos asuntos será informado este Consejo.

*8. puntua- Galde-eskeak.*

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde Angel Elias Ortega jaunak hartu du hitza eta, sailburu Javier Madrazo Lavín jaunaren izenean, Osoko Bilkura hau zuzendu ezin izana sentitzen duela adierazi du, eta legegintzaldi honetan egindako lana eskertu die Kontseiluko kide guztiei.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak Kontseiluaren 4 urte hauek aberasgarriak izan direla adierazi du.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat eman da 13:45ean.

*Punto 8.- Ruegos y preguntas.*

Toma la palabra D. Ángel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, que en nombre del Consejero D. Javier Madrazo Lavín expresa su pesar por no haber podido presidir este Pleno y agradece el trabajo de todas y todos los miembros del Consejo durante esta legislatura.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, del Centro de Información del niño y la niña, expresa que estos 4 años de Consejo han sido enriquecedores.

Y sin más trámite, se da por finalizada la sesión a las 13:45 horas.

SECRETARIA
IDAZKARIA

VBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA